EGUNA

JEL

¡¡ Euzkotarrak !!
Itxartu zaiteze Euzko-Abertzaletasunak artu ta duruan indarraren durundijora

Lgo. urtia | 3'gn. zenbakija | Idazkolea ta banakolea: Correo, 17'gn. | Bilbao'n 1937'gn. Urtarrilla 3'gna. Igandea | 15 eunen

Euzkadi'ko gobernuak agiñak erakutsi dautsez "Koenisgberg"eko itxasgixonai

Atzo goxian gure egazkin eta itxasontziak lagunduta "Soton" ontzia Santoña'ko portuan sartu zan aleman ontziaren aurrez - aurre.

Gure gixonak eta ontziak iñoren bildur eztirala erakutsi dabe. - Beste izpar batzuk.

Goyan bego

Gure lotsa ta begiramenik itzalena ildakoari. Eriotziaren oindian gorputz ilotzen aurian makurtu ta gure espanetatik otoitz bigun eta samurra dua bere aldez. Gure ziñestiak orixe irakatsi ta aginduten dauskue.

Atzo gabian Unamuno jaunaren eriotz izpara artu ordukoxe berak ainbeste bidar iragarri eban gure izkuntza maitagarriaren azkenaz gomutau giñan. Eta arigaria: Unamuno il da euzkerea erabili ta zabalduko daben egunerokua jayoten dan egun berbertan.

Ezlakigu Unamuno'ren itzak biotzetik urtenak ixaten ziran, berak alantxe pentsau eta sendiduten ebalako edo gorotz eta maltsurkeriz agertuten ebazan, uste eta asmes egindako irabazpide ta osperik lortu etzebalako euzkerearen bidez.

Gixon askoren maitasunak zindo ta garbiago jayo ta sortuaren eragozpen eta itxaki motza biar ixaten dabe okertu ta goroto-arez kutsutuko. Eta maitasuna mindua, berari eutsiten jakin ezik, gorroto ta esaera bekaizti askoren iturburu ta sorlekua ixaten da, ta arerijorik ankerenaren ilxurea artzen ezta makala, eta baru txikidunen ara kanporatateko zolitasunik ba'dau.

Unamuno jaunari bere gastaroan euzkereagaz igaroa jakin eskero, euzkerearen aurka geroago esan eta egin ebazan eriotz-itz eta epayak azketsi leikioz. Baña bere itzen eta iragarkixun naigabetsu ta zilalen aurian EGUNA'k bere burua agertuten dautso, EGUNA'k euzkerearen sendotasun eta bixitasuna erakusten dautso, euzkotaren izkuntzearen gaitasuna.

Gixonak eta jakintsuak il aren, eriaren muñean gartsu dabilan maitasun garbia zabaldu egiten da ta ilezkor biurtu.

Izkuntzea erien odola da. Eta eriak lodi, osasuntsu ta zoriontsu bixitekotan izkuntzea bixiko danik ezin ukatu.

Gorotozko itz batik eztogu geure eriotzia iragarri ta nai ixan ebanantzat. Bera ilotz geratu da guri bixitza-eguna argitu yakunian.

Goyan bego!

GURE ITXASGIXONAK ALEMANEI ORTZAK ERAKUSTEN

Basaldua'k esan dauskuna

Geure idazliak

Ruiz-Azua taf Andoni ¡"Ogoñope"! ¿Nok eztau ezagutsen "Ogoñope" ospetsuba? Idazlia, izlarija, ta sutsuba atan be, Bilbao-irots etxe edo radijoko euzkel-esalia. Eta datoren astetik aurera, geure eguneroko onen guda izpafkari bereizija ¡Ezta gero edonor gure "Ogoñope"!

"Palos" itxasontzia zala-ta Alemani eta Euzkadi'ko gobernuen artian egoan asaria arañegun getu zan "Soton" ontzija alemanak ezelako eskubide barik eta koldarkeriz kañoi-suz inguratuta aitz-ertzera bota ebenian. Bera atarateko atzo egin dana Basaldua jaunak kontau euskun izparkarioi.

Gaur goxian, esan euskun berak, "Koenigsberg" guda itxasontziaren aurian eta bertako gixonak erez erez konturatuten zirala gurien auserdi eta kemenaz, atzo alemanak kañoi-suz inguratu eben "Soton" ontzia Santoña'n sartu da.

Sartze ori ezelako eragozpen barik egin da, gure egazkiñak, itxas pekuak, "Jose Luis Diez" guda-ontzia eta "bou" batzuk zaintzale zirala.

Santander eta Burgos'ko jaurlaria dan Ruiz Olazaran'ek esan daustanez izpar onek Santoña'n sortu daben poza andija ixan da.

"Koenisgberg" uruti xamar ibili da sartze ori ikusten.

Itxasontzi onek sortu daben asare eta zaratea zelan zabaldu daben atzo gure uretan eurenak bai'liran nasai ibili ziranak, gure ontzi baten aurka ekiten, ontzi ori atxilotu ebela zabaldu dabe ludi gusti ziar euren ifatien bidez, "Palos" artu gendulako ayertuten.

Ori gustiori egiaren aurian guzur tauta gerantzen da eta gaurko au ifrtien jakitun inifi dogu atzeritar eritxia zuzena ixan daiten, bata eta besta alkafen onduan jafiaz.

Guzurrak oñak labur

Guda bat irabazteko, diruba dala beñori sari entzun dogu. Asaldarijak be, diruba beti bai beti alegindu ixan dira, ta loftu be egin dabe geyenetan. Orainguan be, naikua ta laf ondatu dabe, indafa ta guzura aldezturiak.

卐 卐 卐

Txindiiaz bakafik eztabe, ostera irabaziko, ta indafaz batian, guzufaz irabazi nai dabe. Komunismua emen dogula-ta jagi ei ziran.

Goxia ta gexua besterik ez ei-dogu emen Orixe diñue ifungo lotsu barik euren izpafingijetan

卐 卐 卐

Patxistak menpe afturiko efijetan ifatizkiñak batuten diarduba eresi laban eta zikiñik entzun eztaven.

Ora of akelafe-dantzara iñoiz ixan ezfranak.

卐 卐 卐

Komunismua oneltan ezafija ixan eztalten laguntzen ei dautse españaf asaldarijei Alemania'k.

Nok zifistuko dautsola-ta dago? Nombere etxia ankaz gora daukanak auzokuak atonduten zer egiñik eztau.

卐 卐 卐

Ixillk ari dira doistaf gorijak España'ko bazter batzubetan. Dunbots batzuk ekiñalean guda-oñetan, eta nunbaiten meatz eramaten.

Beste erijen ardura gitxi ixan dabenok, oinguan be, etxerakuak dirala agertu dabe. Rif eta Riotinto'k ba'lekije izketan!...

卐 卐 卐

Gure efi onetan gosia baño ezpa'lego, azke ixango litzatekez mendijak, iñuan Sabin'ek.

Bai Alemania'k ondo uleftu bel

ZER-ESANAK

¿FASISMUA ZER DAN?

ORIXE ifaun ri zuzenc ausku irakurle batek. ¡Ene Josumila bidaf! Erantzun efezagua daun ifaunik egiten ezpa-dauskuzube ene irakufliok, itxuagu esturaldi andirik ixango geure eguneroko zeregiñetan.

Fazismua zer dan?

Auxe: Toki edo leku baten, jagifen dok arpegi goibel naiz bijotzerfaren efiaz zifalduriko astakiloren bat, eta didaf-egiten yok:

"Ece... emen neu nok jaun eta jabe; emen, goiko ta beko, erdiko ta alboko, ¡danak! neuk aginduten dodana egin biaf yuek!"

Eta kirten pilo bat jagifen da, zurikerijea darijoela, esanaz: "¡Gora Mussolini edo Hitler edo Franco!" Asten dira efi gustijari euren bustarija ezarten... efija odolustuten... erijotzea ta negafa zabalduten... eurek jez oldoztuten eztaun gustijari lepua moztuten... eta... ofa of fascio edo patxio dana-dalako ori, sortuta.

Orixe dok patxismua. Ezebez geyago. Ezebez gitxijago.

IZPAR GARRANTZIDUNA

Itali eta Inglaterra'ren artian itunben bat egin da Mediterraneo dala-ta

IXENPETZEKO ZERTZELADAK

ITALI TA INGLATERA ARTEKO ITUNBENA

Londres.—Gauf goxian amaf ta erdijetan, Lateri - altseñaren landol an ixenpetu da england-italiaren afteko itunbena.

Ixenpetze onetan aurkitu ixan dira nak, onixek dira. Laterfi-Zaingo'ko burunagusijak, atzefi - saleroskefarako altseña dan Ciano kondia ta England'eko altseña. Ixenpetze au egiztutzat emoten dabe.

POZA TA ITXAROPEN ONA

Paris. — Italia-England'en afteko itunben - ixenpetze-izpaf ori, efiketa zainguetan joranez aftu ixan da. Europa'ko abafijen alkafaganatutiaren ezaungafija dala ori, diñue. Eta berau dala-ta, gustijak erakusten dabe euren baikoftasuna.

IXENPETZEA

Roma.—Italia'n aurkitzen dan England'eko ordezkarija, Laterfi-altseña dan Ciano kondiak detuta, gauf goxeko amaf ta erdijetan eldu da Laterkolara. Ikeftaldi onetara zaingo onetako notifiik urten nak eldu ixan dira, ta Mediterraneo-bidezko itunbena berala ixenpetu dabe.

ITUNBENAREN ZERTZELADAK

Ginebra.—Itunbeneko zertzelada-ba firik eztakigu. Uste danentz, baña, datofen astelenerako argitaratubak ixango dira.

Itunben-izpafa beriala edatu zan, eta joranez aftu be.

Alkaf-ikuste onen ondoren, England'eko ordezkarijak izpafingilarijak aftu ebazan, eta eurakin izketaldi luzia ixan eban. Alkaf-ikuste aretan agertu eutsien ixenpetze ofek softu ixan eutsan poza, ta France'n be izpaf ori pozik aftu ixango ebelakua agertu eutsien.

Auzi beratzazko beste azalpen batzuk be egin ebazan.

Unamuno'ren illegortzija

Atzo egin zan Salamanka'n Unamuno'ren ilegortzia. Jente gitxi juan ziran bertara. Paxisten egintaririk be etzan juan.



¿Ezagutzen dozu zubi au irakufle?

Ondo zafa da ba. Bilbao'ko udale txiaren aurian aufkitzen dana dozu; itxi ta iriki egiten dana. Len, bertatik igarotia txakuftxiki bat ordain-tu biaf ixaten zan. Orain, dubarik. Len zubi edefa zan. Orain, bere albuan edefagua egin dabelarik, maxkaj lotu da. Dana dala, jakingafija ixango litxake, zenbat txakuftxiki batu ixan daun zubi ofek, jakitia, ¿ezteritxozu?

EGUNON

Aurtengo gabonzar isilik eta baketsu igazi dogu benetan guda oñetatik urin.

Beste urte batzuetan kalerik-kalle entzuten ziran zaratak eta astrapalak ez doguz aurten entzun; efi osoa itun eta oldoztun egon da. Izan bere, ez dira aldi onek zarataka ta ezkanbilaka ibiltekoak. Gure aberi maite-matie au guda ankeraren altsoan sarturik dago, eta Euzkadi'ko gastedia aberiaren aldez bere odol-gorri-gorija izuriten ari la.

Nekea, negafa eta lofa ikusten ditugu alde guztietatik gure aberi onetan, eta guda oñetatik urintxo bizi gareanok, ondo baño obeto egiten dogu, gure biotz barruetan anayen neke ta lor sakon orek ikustean, naigabetasuna ta samiña gordeteaz. Illetaz bete-beterik dakusgu gure lufa, ta gure gogoa bere era bezean, ilelta bardñaiz yantzi bear, benetako anaitasuna erakusteko.

Baña arañegun yayo yakun urte baria, aurerako egunean betiko ayenatu yakun beste aura baño alaayenatu yakun beste aura baño alayagoa ta argiagoa izango yakulakoaren otsak nabaitzen ditugu alde askotatik.

Europa'ko efirik ospatsuenak eta baita Ameriketa'ko efirik aurreratuenak bere, gure triskantza ikaragarri oneri begira-begira dagoz, eta antza danez, gure alde egiten etoriteko gertu. Efi oren laguntasun beroz ez yaku, ala jañetan, gaizki-gaizki etofiko, eta au dala ta, gudazala diran Europa'ko efi batzuek artegatzen eta zurbilduten asita dagoz oraingoxetik.

Itali zan, len beintzat, onetariko efi burukalarien artekoa, eta orain bafiz, len aitatu ditugun efi ospatsu arek eskatzen dituen bidezetatik ibilten asita dago. Itali bafe aldera ekartea izango litzake gure uster Españia'n bakea egiteko lenengoko kiñadea, ta bafi gafantzitsu onen begira-begira gagoz euskaldunok afeta guztiarekin.

Alemani izango litzake orduan bakea egin al izateko eragozpen bakafa; baña burufka arazo ofetan ekiteko bera bakaf-bakafik, iñoren laguntasun barik, geldituko baldin balitz, laster ikusiko genduke efi burukalari ori uko egiteko zorian.

Auxe da berba gitxitan azalduta gaur ikusten doguna; biar zer yan leiteken ikusi egin bearko. Alde batetik efi bakezaleak gizonen zoriona egiteko gertu, eta bestetik bafiz, gudazaleak lurbira osoa triskilduteko alegiñetan.

¿Nok urtengo ete dau gañetik?

ARUGAIN.

WASHINGTON'GO ERABAGIA

Egazkiñak eta izkilluak bialtzia ezin lei galazo

Washington. — Laterfi Batuak Espaiña'ko arazoetan eztirala sartu, garbi azalduteko, efi-agintaritzak idazkiak zuzendu dautsez Paris, Roma, Berlin, Londres ta Moscu'ko ordezkariei, bialdu dagiezan egazkiñak eta motorak ezin ge'ditu ei leikez oingo legiak galerazoten eztaulako ori egiterik.

Geure idazliak

¡Amaikatxu idatzi dau onako idazle onek! ¿Zein dan? ¡"Artibai" gixona! Ondafutaf idazle efimia. Amaikari egidefak esan dautsoz ofek, bai makiña bat matraka softu be. ¡Aguf "Artibai"!

Euzko-Eresbatza

Urtebarriz, Abando'n

Abando'ko Gudaletxe Nagusiko etxafitian, goxeko amaika ta erdijetan, iragafi gendubanez, ereskixun bikaña ixan zan, entzule ugari erdurik.

Egitarau osuan bete eben, eta jasean bete be.

Batasunik zoragafijenaz jo ebezan ereskai oro, ta batez bere, euzko-irakasle andi Usanditzaga, Franco ta Guridi'ren lanak utsegiñez entzun genduzan.

Softu zanian afturiko asmua eztau gure batza onek aztu, eta abefljarenak diran soñu ta erti oro landu ta zuzpertu daroez.

Entzulen txalo beruai gaure zorijonak geitu gura dautsguz. Urengua entzuteko be, gertu gagozlarik.

ATZERRIKO IZPARRAK

Miaja gudalburua itxaropentsu.-Roosevvelt lendakariari al-osua. Bakiaren ziurtasunerako. - "Palos" itxasontziaren auzia. Guda mutillen alogera España'n.

Japon eta Laterri batuak. - Paxisten artian geroago asarre geyago. - Berreun milla langille oporrean Unamuno'ren erijotzia.

MIAJA ITXAROPENTSU

Madrid.—Miaja gudalburuak gastiei zuzendutako itz batzuk esan dauz. Onei gaiki bi ei daukez gurendo edo triunfua lortuteko: ausardia eta indarra.

Nik uste dot, esan eban iñibarreka, guk zarok eztogula askorik balio. Gauzak larregi pentsetan doguz. Gayaren on eta kaltiak geyegi begiratuten doguz eta ori, safitan, kaltegarri da. Baña erepublikearen gastedi bulartsu ta adoretsu au, zeñen aurka ebilen eta zelako izkiluak eukozan oartu eta oldoztu barik, iru estadu andi ta gogorek lagundutako gudaroste edo ejerzitu bateri aurre emon ixan ai dautson gastedi efime onek garaitzea merezi dau eta lortuko dau.

TERUEL'EN AURERA?

Valencia.—Teruel ingurutan ezagutu ta igarten diran gudarien jun-etorriak eta azkenengo egunetan irabaztlako lekuak gogortuteko egiten diran lanak ikusi eskero, aurerakada bat egiteko gertakixunak dirala esan lei.

IRAKASKINTZEA KATALUNYA'N

Parcelona.—Generalitat'eko gobernuak zabaldu dabezan ikastoletarako beroge-tamutau ume ixenpetu dira.

AL OSUA

Washington.—Politiko batzokietan ziurtzat emoten da Laterri Batuetako Lege-etxeko batzarak al osuo emongo dautsola Roosevelt lendakariari España'ra izkiluak bialtzeko auzian erabagi dagian.

AITA SANTUA GEXORIK

Roma.—Urte bariak dirala ta Aita Santuak artu dabezan ikertaldiak ugari ixan dira. Ori dala-ta gustiz nekatuta geratu da eta bere bixiak bilduf ugari sortuten dauz.

BAKIAREN ZIURTASUNA

Londres. — Inglaterra'ko iru alderdi nagusien ordezkariak agiri bat argitaldu dabe. Bertan diñoenez gudea bakarbakarik Laterj-Batzarra'ren bidez galerazo leike eta armetara jotia biarrezko ba'litz era onetaxe: Laterí bakotxa Laterí Batzarraren itunbeneko arauak betetera eta gustien bakjaren aldez jokatzera biartu biarko litzake.

ZINISMENAREN ZALDUNAK

Madrid.—Mairuak España'ren aldez egin daben egitekua dala-ta, Meca aldera ibilaldija egin dayen juan-etorija gerta eta antola biar yakela diño izparingi batek.

ESPAÑAR AUZIATZAZ

Roma.—Ciano'ko kondiak Porugal'eko ordezkariaren ikertaldia artu dau eta uste danez España'ko gudeatzas jardun dira.

JAPON ETA LATERI BATUAK

Moscu.—Alemaniaz Japon egin dauan egiunia dala-ta, laterí oneri morapilorik agertu yako.

Sorkalde'ko arazoetan Laterí-Batuak eskurik eztayela artu gura dau, baña, bestalde, Laterí ok ez dabe Japon'az egiunerik burutu nai; bai, ostera, Washington'go itunbenan arteko izan ziranekin eta Rusia'z.

Pazifiko auziak atonduteko komeni bai-yako.

LAGUNTZA BAT

Barcelona.—Generalitat'eko egunerokuan agindu bat agertzen da Erepublika'ko Abofi Zaitaldiaren biarrixanetarako miloi bat eta berreun mila laurleko emoten.

OPOR GOGORA

Detroit.—Generals Motors landolak saratu dira. Landola ofeitan berreun mil langile dabiltz.

Landola onetako zuzendari nagusiak esan dau astelenerako lanera biurtuten ezpa'dira euretako langilliak, landolak berriro saratuko dauzala, jaubiak eztabeiteko erusan nai lanik ez egitiak daroezan kalterik.

ESPAÑAR GOBERNUAREN EGAZKINAK

Valencia. — Gobernuaren egazkingk lan gogorik egin dabe atzoko egunez. Taldo batek Guadarama'n arerioak eukezan gordeleku batzuk sutu ebazan eta beste batuk Teruel eta Concut. Begiraleak esan dabenez kalte gogorak egin dabez.

ORI EZTA BIDIA

Ezin lei Alemani'ri diru laguntzarik eskiñi

Londres.—Diru-gaya darabilan izparingi batek diñonez, ezin lei ezetara be ontzat artu, gudea bastartu al ixateko Alemani'ri diru laguntza bat emon biar yakola uste daben laterjarazuak erabilteko ardurea dabenen eritxi ustela.

Izparingi orek diñoanez Alemani'k eztau biar olako laguntzarik. Ameriketara egiten ebazan bialkunak iru bidar geyagotu ta ugaritu dauzalako.

"PALOS" ONTZIJAREN AUZIJA

Madrid.—Dolstar ontzi orren auzija bidr Euzkadi'ko jaufbidiak jokatu dau an zuzentasunaz Londres'eko ardura-bazkunak epaituko daula uste dau "Claridad" egunerokuak.

LATERI URIBURUA UZTUTZEKO

Madrid.—Uri onen aldezko Batzarak ainbat uri aunditiko abintzak jaso dauz Madrid'eko biztanliak leku - uztutzia dala-ta uri oneitara juan ditezan. Albacete, Jaen Murcia, Barbastro, Reus ta Gerona dira orelk.

SANTANDER GOGORTZEN

Santander. — Alkarta-unen batzak, egazkitiken suagen aurka eria zaintzeko egiten diran lanak ikusita, eskabide bat egiten dau. Bere ustez gudearen tzat eztiran lau gustiak bastartu eta laga egin biar dira. Santander'ko langile gustien eskuak guda-lanetan ibili daitezan.

MUGAETAKO NEURIAK

London. — Laterietako ministroari gaur emon dautsa España'ko arazoetan ez sartzeko lanetan dabilen Batzordeak oar bat. España'n gudan ari diran talde bijal bialtzeko, agoki izango litzakezan erabagiak leora ta itxasua zainduteko.

Guda alderdi bini amar egunen buruan erantzuteko eskatzen yake.

Eskakizun orelk, Henry Chilton, Ingdaya'ko ingelandar ordezkaria ta Jorles, Madrid'eko ordezkariak eruango dautsez erkal-jaurlaritzari.

ALEMANIA'REN ERANTZUNA

London.—Berlin, atzo ingelandar ordezkariak eta Von Neurath, alemanak, itz-egin eben España'ko gudeatzaz.

Gudariak bialtzea dala-ta parantzetar ta ingelandafak emon eben oafari, Alemania'k ganeko egunen baten erantzungo dautsola uste da.

Erantzun ori zertarikua izango dan ez jakin.

AZARI DAGOZ

Madrid.—Urtearen asieran uri oneta ko gudatalden buruzagi guren Miaja'k izparkilari bati adirazo dautsanez, elburura elduteko bere alde dauz baldintza edef bi gastedi langiliak; ezarí eta jasankofa da, ta eztau ezerk bere kilkiluten. Orixe gurendarako ezaugarí zjufa.

ALALA ZAMORA'REN SEMIA KOMUNISTA

Valencia.—Alcala Zamora españar erepublikako lendakari ixan zanaren seme bat komunista egin da. Komunisten alderdiko idazkariari zuzendu dautson idazki baten esan dautsonez aspaldidik ebilan buruan orain artu da ben erabagi ori.

ERAGOZPENAK BILATZEN

London.—España'ra gudari aotzik juan eztedin, legezko erabagiak zeintzuk izango lirrkean ikusten diardue.

Alterian ingelandarik miloi bat edo izango dirala ta, neurí egokiak artzeko gaitz izango daila, iñuan laterí onen ordezkariak. Alabaña, euren konsulei ardura ondiz jokatu dayela eskatuko dautse.

Guda-alderdijei diru laguntzea ukatuteko bidiak be aztertio ebezan eta italiar ordelariari martitzenerako aurkeztuteko erabagi gayak. Onetzaz eztarlo erreza, miatzak eta be, lagi orren menpe izango litzatekez-ta.

PALOS'EN GUDA GAYAK

London.—España'ko ordekariak, Azkarate jaunak, bere gobernuaren asmua argi agertu dau, Palos ontzijari kendu yakazan guda gayak eztiralá biurtuko osanaz, itxa-barutian atxilotua izan zalako ta ez itxazertzetik ogei miiara, norbaitzuk zabaldu daben bezela.

Egazkiñak saltzia ezin iñok galazo yankitarrai

New York.—España'ko gobernu eskaldarari egazkiñak saldu dautsazan ola-naguzijak esan dau ofetarako baimena ixan dauala.

Ofezkero, salduketa ori galazoko dauanik ez ei dago, egazkiñok saleroseta-gayak diralako ta ez gudagayak.

Bi milua ta geyago dolafetan saldu dauz.

Komunismuaren kaltez dirala-ta norbaitzuk artu dabezan bidiak eztira egokiak

Orixe diño damu andiz Erroma'ko Aita'k

Paris.—Aita Santuak Gabonetako itzaldijan esan dauzanetatik, "L'Oeuvre" izparingiak itz oneik banandu ta agertuten ditu, berezki:

"Gixakidiaren indarra kaltez, matxiñada-zale ta komunisten alegiñak ezerestu gurarik jagi diriamik, eta onetan iñor baño lenagoko ta beñagoko dirala uste ixanik, bide okerik asko ta jokaera ez egokirik ugari darabilezala tamal biziz oartu daruagu."

ESPAÑAR PORTUAK ZAINTZEKO

Londres.—Españar portuak zaintzeko lord Plymouth'ek egin daben eskariaren erantzunerako amar egunelco epe edo plazua emon da.

UKATUKO ETE?

Washington.—Lege-etxe nagusiko batzarak asten diran egunian lege-gaibak aurkestuko da batzarari gobernuari izkilu-bialtze kontuan galerazpenak egiteko eskubide batzuk emoten.

ALEMANI'REN EGOERA

Paris.—"Paris Soir" izparingiak Berlin'en daukan ordezkariak diñoanez Reich'go gobernuak ondo ikusten dau frantzetar eta efusitarcu arteko iinnbena eta eskaizen dau laterí edo estadnen artian zarata nastia dagonetan Laterí Batza ixan daitela norixan dau efudun.

ESKUBIDE OSUA ROOSEVELT'I

Washington.—Eskubide osua-arauzko legiaz, Roosevelt, Laterí Batuetako lendakarija beste bere aufetiko bat ez batek ixan ez dauzan eskubidedun lotu da.

BURNIBIDE LUZIA

Moscou. — Ainbat denporan egiten jardun daben Ridder ta Rubtsorka alkafiuten dauzan burnibidia amaitu dabe. 259 kilometro ditu.

JAURLARI BARIJAK

Valencia. — Madrid eta Murcia'ko jaurlari, Villalba'tar Mikel eta Romero'tar Adiran izentau ditue. Azkenengo au Pontevedra'ko alduna da.

GUDA-MUTILEN ALOGERA

Valencia. —Españar Gobernuaren aginduz guda-mutil gustijentzat alogera bakafa ixango da amar laurleko egunero.

Jatekotan, bederatzi erial eralgiko dira ta garbitasun, osakai ta izkilu-gertuketan, iru txakurandi.

ASALDARIJEN ZIRIPARAK

Madrid.—Uri onetako guda onetatik jaso diiugun izpafetan patxistafen artian lazka ta asafeak dabez.

Batzuk efekete ta bestiak palanketafak dirala-ta, bakia egingo ba'zan, talde bat erail biafa ixan eben gudal buruak.

JANTZI BEREZIAK GALERAZO

Londres.—Urte bafi egunetik galerazota geldítzen dira Ingiatefa'n jantzi bereziak gobernutarentzat ixan ezik.

Paxistak legez ziaztu ta argiagotu daitela eskatu dabe.

MATXINADA BARIJA

Shanghai.—Chian-Gu ufian bafiren bafi matxinada bafia sortu da. Asal darijak gurenda-itxaropen osoz jagi dirala diñoe.

SUIZA ONDORA IZKILUAK

Paris.—Suiza'ren mugaetan aleman gudari-aldra aldiak, ara-ortuska dabiltzala egunetan diño "L'Humanité"k. Eta baita arma ta sugairik ugari be bildu dituala muga inguruetan.

Alemania'ren gurariak zer diranentz eztakigu.

Errementeria'tar Saba JOSTUNA

Ondarroa

España'ra bialtzeko gertau dabezan egazkiñak Ipar-Amerikan

New York.—España'ra gudagayak bialtzeko, Laterí Batuetako gubernuagarik baimena jaso dauan Vimallert Company etxiak, gai oneik erosi ditu: 35 egazkin Curtiss-erakuak, 100 Wahs, eta beste enparauak Wright, Coquerors eta Hornets.

Bosteun ta scireun zaldi-indafeko bultzkiñak dabez.

Gayok, Ohio-Dayton'en gudarostiari erosijak ei dira lenago.

UNAMUNO IL

Madrid.—Atzoko izparetan itunagaz emon gendun Unamuno'ren eriotz izpara baqeztuta eta ziurtauta geratu da. Atzo afatsaldian bere idazkolean lanean ebilala eriotzia eldu yakon.

Salamanka'ko ikastola nagusiko buru ixan zan eta azkenengo paxistekaz Salamanka'ko kontzejal ixan zan lenengoetan, baña gero kargo ofetatik kedu egin eben.

ITALIA ASPERTUXE

Paris.—Italiar patxistak españafen aftian gudatutiaz aspertu-samar dirala zabal da.

Diñoenez Mussolini jaunak ots egin dautsa Hitler'eri gudaketa ofetzaz alde egiteko asmoa azalduaz.

Ixan be, loftu dauzan garaitzak eztautse gogua asko poztuazi.

Kirolak

Mungia'n

Ubilla Ita Mallabia'ko Txikia aurrez-aurre (1)

Atzo, ostiral-afatzaldez, iragarita zegonez, Ubila I'k eta Malabia'ko Txikiak jokatu zuten. Eskuz-esku jokatu ere.

Malabia'ko Txikia aundi agertu aztai gun Atzo-Afatzaldez Mungia'ko pelota-tokian. Lenengoan tantoan berkindu ondoren, "Txikiak", pelotari "aundiak", 10-3 aurerakada egin zuan. Ubila'k, alde ori berdindu-asmoz, lerenak egin ba'zituan ere, "Txikiak" laister artu zuan befiro ere aurrerakoa: 16-11.

Ubilak une ontan, eskumiña mindurik zuala-ta, pelota-tokitik kanporakoa artu zuan. Ofa of jokaldiaren amaia: 16-11, Malabia'ko Txikiaren alde.

Bi-iru tanto izan ezik ostontzekoak mortel-xamarak izan ziran. "Txikia" baiña, oner-onenean dagola ezin utzi esan gabe.

Bigafen jokaldiak ere ez zuan goragafi asko izan. Afien eta Urzelaik, II'gn. Ubila ta Aboititz zapalduta utzi zituzten: 22-9.

Afien Txikiorentzat beste gurenda bat geiago atzo-afatzaldez.

(1) Atzokoan astuta gelditu zana.

"Euskalduna"n

Atzo-afatzaldez, iragafita zegonez, Olabafieta ta Areitiok, Onaindia ta Egufolaren aurka jokatu, zuten lenengo jokaldian.

Jokaldia goren-gorenekoa izan zan ta ikusleentzat beg-begikoa. Naikoa estualdi ta lafi-aldi ondoren, Onaindiak eta Egufolak irabazi zuten. Bost tantoz irabazi.

Ondoren, Bazkaran eta Pagoaga, Gatzaga ta Guridiren aurka eratu zuten bigafen jokaldia.

Bi tantoz bakafik baiña, abarketa matufak ufatuta bedere, Pagoaga ta Bazkarena izan zan jokaldia.

Gaur arratzalderakoak

Lenengo jokaldia: Markines eta Areitio, Juaristi, Aranburu ta Lasa'ren aurka.

Bigafena: IV gn. Ramos eta Gurutzeaga, Onaindia ta Gatzagaren aurka.

Moderno'n (Donostia'n)

III'GN. ATANO TA ARTAZO'K ZORTZI TANTOZ IRABAZI ZIETEN IV'GN. ETXABE TA "MONDRAGONES,'ARI

Entzun degunez, iritzi-miritzilariak naikoa jazo dute III'gn. Atano. Galtzaileak ere ez omen dituzte bezan utsi. Ori obe! Itxura dagonez, pelotariok "erti-aldez" diardute III'gn. Atano'k ere bai. Bai, bai! Kifu, Egita ta Ubifa'kin jokatzeko eskuko mifi asko... Orain, baiña, "erti-aldez" diardute.ta...

"Club Deportivo' ume-zurtz alde

Goragafia da aspaldion "Club Deportivo"k dagian lana. Gudarien ume-zurtz-alde dagi orain lan.

Eraifiegun, Uriko txaideak izan zituan lan-leku, Atzo, inguruetako efiak. Biar Zornotza, Gernika ta inguruetara jafaitzekotan da. Ori da ori ater-gabe ta aspergabe jardutzea! Zorionak zueri, "Club Deportivo"koeri!

Eraifiegun Bilbaon batutakoak 2.124-45 lko. baifio geiago dira. Goratzekoa da Guda-Zaingoaren eskuzabala, 100 lko. eman zituan aitaturiko ume-zurtzontzat.

Ume-zurtz-alde, jostailu ta dirutan ezer eman nai duten esku-abalak, Urkixo'ren Zabale'ra, 9, joan ditezela.

MENDI-GAIN.

NERE BORDATXOTIK

Bildutako Sortatxoak

¡Agur, EGUNA! ¡Agur, poz ifiz! ¡Motefak! Edefto apainduta kaleratu aute gero... ¡Dotorea ago, afanetan!

Kanpoz begiratzen ba'zaik, jantziz iñoren lotsik ez dukala aitortu beaf.

¿Ta bafen muña?

Oftan ago sendo, oftan.

¡Bejondeikela motel!

1937'garenaren asieran ofen bikain kementsu agertu aizen ori, ondorengo urteak amaitu ta amaitu, igaro ta igaro dijoazenean, i egundo baño trebeago ta osasuntsuago izatea nai nikek.

¡Orixe nire ametz bakafa!

✦ ✦ ✦

Entzun, trakurie.

"Lizardi" euzko olefkari gurenaren "Itz Lauz"-en ofialdeak iñoiz miaztu ditugu?

¡Zein eztitsuak diran ba...!

Aztu ezifieko bere maiteñoa euzkerazun "Lizardi" aundiak. Une oro deflor bereikin beaf zuen pitxia.

¿Ainbat aldiz amestu zizun egunerokoaren olartzuna euzko-kaletan zeaf entzungo ba'lizu, zef brinka ez luke egingo gure Joseba Mirena'k? ¡EGUNA! ¡EGUNA!

I izango aiz euzkaltzale zintzoen egunerokoo gosari. I gabe gu alikatzerik etzeok.

"Lizardi" ta "Kirikiño" baten begiak ikusiko ba'indute...!

✦ ✦ ✦

Ergelak gaituk euzkouk.

Ergelak ik dakafkikan pitxi edefa buraz. Afotz kutsuak aspaldidandik asiak itukan gure lufetan, eta erabat afoztuak gaituk oraintxe. Matsik onena etxeko maastian degun-afen, beti auzo maastian goazik.

Ik EGUNA, etxeko matxarekin egiiko edari gozoa eskeintzen diguk, baña belduf nauk beaf ainbat edale ez ote dukan izango.

¿Ulertzen. ¡rakurie?

¡Utik, baño beltz itxusiok!

¡Ufun, itxasoaren oru takafok:

¡Ixil, Ama'ren negaf zotin itunok!

Orobat, izkilu ta suaga zarata nadagafiok!

¡Pakea bedi guzion efegin!

Ez geiago odolik euzko-mendietan.

Euzkadi euzkoentzat.

Efiak euren buru gabe.

Langileak orobat.

Auxe izango ai da 1937'garen urteaekafiko digun saria.

Agife jaunak esan duan lez, "unerik beltz eta lotzenetan berpizten dira efiak".

Jaunak nai dezala gure oni au gertatzea!

BASARI.

URTE-BARRI OSPATUTEN



Urte-bafi eguna ospatuteko, apari ba-tera defu euzan Euzko-Gobernuko lendakari jaunak gudalburu, agindari ta abaf, eta ofa, of, apari atako zertzelada bat.

Zer nai ete dabe alemanak itxas-ontziei bideak sarratu eta jazartuaz?

Alemanak asafe agertuten dira Euzkadi'ko gobernuak zuzentasunaren ixenez jokatuaz "Palos" ontziagaz egin eutsenaz. Euren asafe ori ezin gorde dabe eta saspikiak lez or dabiltz itxasoetan baketsu dabiltzan itxasontziei eragozpenak ipinten.

Arafiegun "Soton" ontziagaz sartu ziran eta estualdi edefa emon eutsoen "Koenigsberg„'en kafioyak. Ori dala ta Santander'eko jaurlariak bere asafia bixiro agertu dau.

Zollo

EUZKEREA GALTZEN.—¡Euzkerearen edeŕa, irakuŕle! ¡Euzkerazko berbotsaren eztia! ¡Euzkel-efietako euzkel usain gozoa!

Negaŕez gayatoŕtzuz, adiskide. Orain arte eŕi onetan bizkoŕ bixi-ixan dan euzkerea mekotuten asi yaku.

Gure elearen aldez emen iñok eztauŕa ezer egiten ikusiŕik, egi gaŕatz ori erakusten eta osakai batzuk opatuten gatos gauŕ gu.

卐 卐 卐

Araŕun, elexa-ondotik igaro biaŕ-ixan gendun Biotza naigabez leŕtu-agiŕian, erdebitz batzuk entzun genduzan. Bost urteko mutiltxu batek—matraŕl goŕi lodi, begi baltz bigunak, ¡euzko baba lorea!—erderea erabiŕan paŕa-paŕa bere espantxuetan.

Guraso abeŕtzalen semia da umetxu ori; juan dan udan tutik be ezekian erderaz; eskolaŕa ezta ibiŕi iñoz. Nok iŕakatsi dautso erderaz? Bere adiñeko gastetxuak.

Bost urtetik amasaspi urterako gastetxu geyenaiŕi, Elexa-ondokoaiŕi ta Azpiuntzetaŕaiŕi batez be, erdera atsegin yake orain. Kanpotaŕ "efefugiadu" gastiak (batzuk gipuzkoaŕak, bizkaitaŕak bestiak) sortu dabe erdeltzaletasun au.

卐 卐 卐

Zoaz, iŕakuŕle, domeka-aŕasti baten Zeisakone'ŕa. Eztogu entzungo euzkel itzik. Erderea baño eztaŕabiŕe gaurko mutil-neskak.

Andikien elea dala-ta, erderaz itz egitia eskatuten dau neskatoen afotasunak eta aren erdel-itz-zaŕapadeaŕi erderaz be erantzungo dautse kezkabako mutiak.

Lan onetan danak diŕa batzuk. Danak, abeŕtzaleak eta abeŕtzale eztiranak, euzkerea baztertuteko alegiñak egiten. ¡Au lopa!

卐 卐 卐

Ba-daukagu Araudia (Estatutoa). Araudiagaz euzkereak asko auferatuko ebala uste gendun. Gure jayoteŕi maite onetan baña, ezta agiŕi auferatze oŕi. Eŕiko agintaŕi gustiak abeŕtzaleak diŕa. Eztautsegu ukatuko abeŕtzaletasuna. Baña euzkeltzaletasuna?

Araudia daukagu. Abeŕtzaleak baño eztagoz Udalan (Ayuntamientuan). Iŕakuŕle: ¡Udaletxetik eztau urten oindiño euzkeraz idatziŕiko leŕoŕik!

Oindiño ezdiŕa egun asko. Agintz bat bialdu euskun Endore (Alkate) jaunak artalderik daukagun guztiaiŕi. Efefujiduentzako aŕdi batzuk saltzeko iñoskun. Eztogu esango guk eskaŕi oŕi txaŕto dagonik; baña. Agintza erderaz idatziŕik bialdu euskun, eta au ez, au ezta ondo egiña.

Ofetaŕako, be, eztau baliyo gure euzkereak? Idiekaz ibiliteko baño geyagoŕako eztozue gura Abeŕiaren elea?

卐 卐 卐

Txaŕto goaz olako bidetatik. Gauŕ lan apuŕ bat ez egifearen gerorako itxifen ba'dogu, euzkerea ezta osatuko baŕiro emen. Geugaz batera, geldiro-geldiro iigo da.

Zoloteŕ gurasoak: Euzkereaŕen aldez akitia, oiŕura zaŕen aldez lan egitia da. Ez egixue eŕabili erdera. Ez egiezue itxi zuen umeaiŕi erderaz egiten.

Efefujiaduak: Ez egixue alpeŕik galdu zuen seme-alabaiŕi euzkerea iŕakasteko oraiŕ daukazuen ereti edeŕa. Euzkeraz itz-eginazo egiezue. Onuratsua ixango yatzue ta bide batez eztautsaxue kalteŕik egingo euzkereaŕi.

卐 卐 卐

Alkate jauna: Gazte zara; Euzkadi'ko endoreŕik gastiena biaŕba. Abeŕtzale zara; onek jazo zaitu eŕiko agintaŕitzaŕen buŕua ixateŕa.

Asko itxaroten dogu zeugandik. Zeure eskuetan dago Zolo'ko euzkereaŕen etoŕkixuna. Zuk gura ba'dozu (ta gura ixango dozu), zutunduko da emen ostera ta betiko euzkerea.

Gaste zaŕa; abeŕtzale zaŕa. Zure gastetasun ta abeŕtzaletasun guragaŕiak eragozpide guztiak apuŕtuko dabez.

Eŕiaŕentzako iragaŕki guztiak euzkeraz egiteko agindu egixu. Eztogu ikusi gura erderaŕik gure Udaletxeko atean.

Gatxa dala oŕi loŕtutia? Gura-ixatia al-ixatia da Araudia etoŕi yakunian asi ixan ba'zan iñoŕ euzkeraz idazten ikasten, jakingo leuke onezkero iragaŕkiok idazteko beste. Oraiŕ zenetaŕik iñok ezin ba'dau euzkeraz idatzi, lan egixue ta ila bete bi baŕu danak ixango zaŕie euzkel-iragaŕkiak egiteko gai Eztago eragozpideŕik zeozer loŕtu egi-egiz gura daunaŕentzat.

卐 卐 卐

Maixu baŕia zatoŕkula-ta zuŕumuŕuak dabis. Endore jauna: ez egixu aŕtu euzkeldun eztan iŕakasleŕik. Euzkel-efietako iŕakaslea euzkelduna ixango dala diño Araudiak. Euzkelduna eskatu ba ta iŕakasle euzkeldun a eukiko dogu.

Aŕek garbituko dau gure umien euzkerea ta euzkeraz idazten ta iŕakuŕten iŕakatsiko dautse. Gero, ogei edo beŕogei urte baŕu, oraingo umeak Zolo'ko agintaŕiak ha'diŕa, jakingo dabe iŕagaŕkiak euzkeraz egiten.

Iŕakasle euzkelduna da euzkereaŕentzako onik andiena.

卐 卐 卐

Gurasoaiŕi ta Endore jaunaŕi deitu dautsiegu. Ez uste-ixan baña, bestiaŕentzako eginbiaŕik eztagonik. Euzkereaŕen zabalkundean guztientzat dago lekua.

卐 卐 卐

Zoloteŕ guztiak, baltzak eta zuriak goŕiak eta uŕdiñak, zaŕak eta gastiak, gixonak eta emakumiak: ¡euzkerea aldeztuten jo ta ke!

Euzkelduna aŕtu gendun gure asaba zaŕakandik biotz-uneaŕ daukagun gure jazoteŕi au. Lasteŕ itxiko dogu betiko. Erdeldundurik istea ez geuke gura.

AGUREAK.

MUEBLES TA GUSTIETAKO KRISTALAK
GORBEA Y C.ia
Ill'en. Alameda de San Mamés txaidian
11447 Urutizkiña

Lekeitio

EGUAŃI-URTEBEŔI. — Egunetako guda intziri aŕtean ere, guda on gertu-geŕtuan degun eŕi ontan, ikutu berezia izan dute bai Gabon-Eguaŕi eta bai Urte-zaaŕ-urte-beŕi egunak.

"Tuŕoi„'rik ez degu izan, baña baŕ prexku edeŕa bixigu txitxaŕo eta abaŕ adeŕak aiŕ ere bai nozki Bear, gabon-gabeko oparia goxoa izan, da. Auŕtengoagatik ere, Jaunaŕi ezkeŕak eman beaŕean gera.

Eguaŕi egunak, jai aundia bezela, eleizaratu ditu biotzak. Amaretan jaupa naguzia edeŕ-edeŕa izan zan Perosi'ren "Eucharistica" abestu genduan. Amairean, J. Valdes'en eguaŕi abesti goxo bat.

Urte-zaaŕak igez egin du. Aguŕa emana diogu alik ondoen. Urte-Beŕia, azi bezin laxter igezi bezela ba dijoa; egunak ara iru.

Eŕixadonean jaupa naguzi edeŕa, beste eleizgai aŕtean, izan da Perosi'ren iru abotzetakoa abeztuaŕ. "Ofertorio„'an, Goikoetxea'ren "Ave Maria" eta azkenean "Josu negaiez", A. Ugaŕte'ren eguaŕi abeztia zuzendaŕi Valdes'taŕ A., abeztu genduzen.

Urte zoriontzua izan dezngula, J. I.

Elgoibaŕ'tik Bilbao'ra

ERIOTZA.—Oraiŕ egun batzuk, jaunagandu zuan bere bizia, 60 urte zituala, Elustondo'taŕ Pantzeske, "Ibaŕtxiki" baseŕxeko alabea, Begoña'ko Deune Monike lekaimeetxeko "legia" zan (G. B.).

Laguntzen diegu atsegabian, bere lekaime laguneŕi eta sendikoeŕi.

Aixeŕixa

EUZKEL-IZENA.—Igaro dan 24'an. Lekeitio'ko bar "Leku-Eder„'eko Iŕazola'taŕ Laurentzi eta Argoitia'taŕ Benite' ezkontzako lenbiziko emaitza izan dute.

Amoroto'ko txadonean ugutzatu edo bataiatu da alabatxoa. Itufalde'taŕ Plazido itxaz-ontzi "patroi" ezaguna, eta Bereikoa'taŕ Eugeni, "Amiñaga" baseŕiko etxekoandra jatoŕa, izan diŕa besoetan aŕtu dutenak eta Amaya euzkel izen polita jaŕi diote.

Zorionik beroenak aita-ama'ŕi.

AGUŔTU.—Egunetako jainki diŕala eta ziur nago anai, lagun azko alkaŕ aguŕtu dutela. "Eguaŕi" egunean, Lekeitio'ko seme "Endaitz", euzkel-idazle jatoŕ-jatoŕa ezagutu eta aguŕtu egiteko aldiona izan det.

IXAKA.

Galdakano'tik

IKUŔINAK EMOTIA.—Gauŕ, goxeko amaiketan. Elexalde'ko eŕtxadonan ixango da ikuŕin baŕi biŕen onespena. Ikuŕiñak, San Miguel'daŕ Iñaki eta Leizaola gudasalaentzat diŕa, eta zabalduŕiko bilpidez baturiŕkuaz egin diŕa, ta eŕijak gogotsu erantzun dautsa dei oneŕi.

Ain maite genduban Leizaola'taŕ Karmel zanaren sendijak be, emokun berezija eskeŕi dau.

Ikuŕiñak onetsi ondoren, saletako buruzagijei emongo yakez, Abeŕija'ren ikufaz geure luŕalde gustijak ziaŕ azkatasun-didafa eruan dayen.

Jaŕayan, il diŕan gudaŕijen gogo aldez, mezea ospatuko da. Etxian dagozan gudaŕi gustijakin batian galdakaotaŕak egikixun oneitara diŕala uste dogu.

Urgoitiko

Udalei agindua

Burtariñak

Euzkadi'ko Udal edo Ayuntamentu 'gustiei agintzen yakoe urte baŕi egunetik asi ta sei egun baño len eŕi baŕuan dagozan artu edo eŕikasautako eta egin bako burtaŕin gustien zertzelado osua emon dagiela. Burtaŕin onetik 'zein lanetan dabiltzan be esan biaŕko da.

Bilbao'ko Euzko-Gastedija

GUDARIJENTZAT JANZKIJAK

Oldaŕgi eta Alberdi gudaltsaletako mutilaentzut euren etxekuak janzkipaŕdelik ba'lebe, Gastedi onetaŕa ekaŕi begijez maŕtitzen eguberdiko amabijak baño len.

Aragoi'ko guda-oñetan

Saatago.—Ebro'ren egoaldetjk dabilen guda salak eztau gaŕantzikoŕik ezer egin. Azuaŕa'ko inguruetan bakia.

Lezera'n, urtjaren amayerea ospatuteko gure kañoyak ogetalau tiro jaurti ebezan gudaletxe nagusiaren gain eta Belchite'ko kanpayaŕi. Eŕi onetan ametralladoŕa batzuk eukezan. Suagak kalte gogoŕak egin ebezan.

Azaola aldian gudariak Godos gogoŕtuten diñaŕdue.



"Fano" gudazaleko gudaŕi-taldetxu ba.

Euren atzian, Elgeta gipuzkoaŕ uŕi polita. Pasisten kañoi gustijak aŕen, zutik diraue ondiño eleiz-doŕe ta etxe batzuk.

Atzoko eguna euzko zaingoetan

Patata-azija jateko ez, ereiteko baño, diñoe Nekazaritza zaingoan.-Lekeitio'ko arrantzalien eskabidia.-Ixunak.-"Pitxitxi" landolearentzat goralbenak.

Arroza zabaltzia laster zuzenduko da.-Ixentatze barrijak.-Beste zertzeladak.

Lendakaritza

AGEŔALDIRIK EZ

Eguerdi ostean Basaldua jaunak aŕtu ginduzan izpaŕkariak eta lendakaŕia lan ta lan aŕi dala esan dausku.

Ageŕaldiŕik eztau batik be izan.

GUDAOÑETAN EZER EZ

Guda-oñetako izpaŕak jaso doguz, eta ezer ezta izan gauŕ. Izpaŕ au Euzkadi'ri ta Asturias, Leon, Santander, Burgos ta Palencia'ri berebat dagokiz.

ITALIAR-ENGLANDAR ITUNBERIA

Itunben au ertsi eta ixenpetuz izan da, esan dau Basaldua'k, baña eztaki gu zer tankera ta muin dauan.

Sorospide Zaingoa

EZER EZ

Baŕiŕik ezta izan emen be. Arazu asko aztertuten diaŕdue. Zaingo onetaŕako emokun asko aŕtu doguz.

Lana. Aurrebegiramena ta Eramanekaŕri Zaingoa.

GAURKO LANAK

Eŕabagiteko dagozan aŕazo asko adiŕaiduten eragon dabe, ta agefaldiŕik eztabe izan.

Toyos jauna oraindik zaingoŕa eidutzake egoan, auzi batzuk atondutera joan baita.

Osasun Zaingoa

Garantzitsuŕik eztogu zaingo onetan ezeŕ auŕiditu uŕengo doazan izendatzeak izan ezean.

Deŕio'ko Gexotegi'ko sendagile, Gotkoetxea'taŕ Imanol.

Itxasketa'ko aŕtezkaŕi nagositzak beaŕ dauzan osasun zeŕtzalada ta agiŕiak emoteko sendagile, Rodrigues Fonseca'taŕ Seberin.

Osasun-Zaingo'ko bazkintzako idazkaŕi, Aransolo'taŕ Joseba Koldobika.

Zaingo onetako basauŕijetako gaŕbitasunekiko idazkaŕi Esteban Gaŕcia'taŕ Kepa.

Ofa Espinosa jaunak atzo izenpetu leuzan agindiak.

Erri-zaintza zaingoa

ESPETXERALDUEN KANBIJUA

Luisa jaunak esan dausku gauŕ asi diŕala espetxeraldueu kanbijoko lanak eta oŕigaiŕik jente ugaŕi ibiliŕ dala zaingo onetan.

IXUNAK

Oŕueta jaunak esan dausku 1936'gaŕen lotaziia'ren lenengo amaboskaŕuan kendutako ixunak ogetamasei mila ta eun eta ogetamaŕ laŕlekoŕa igoten diŕala eta bigaŕen amabost. Kaŕukuak ogetabost mila ta ogetabost laŕlekoŕa. Gustiŕa, iŕuŕogetabat mila ta eun eta beŕogetamabost laŕleko.

Lotaziia'n kendutako ixun batzuk, jaŕaitu dau Oŕueta jaunak, uŕtaŕila'n kobŕantekuak diŕa.

Zuzentza ta Gogo-lantze zaingoa

Ruiz del Castaño jaunak itz egin dau izpaŕkaŕiakaz Osakintza Ikastetxeko saŕeŕia egiteko ilaŕen boskaŕenegaŕteko epia luzatuten dala esan dausku.

Epe edo plazu auxe da baiia be beste jakintzetaŕako eskabidiak egiteko.

Erri lanak zaingoa

ARIETA JAUNAK ESAN DABENA

Uŕondo jauna gaxoŕik egualako Aŕieta'k uŕten dausku, Gauŕ goxian, esan dau, ainbat ikustaldi eukí doguz eta laneŕako astiŕik eztauskue laga.

Ruŕino Castaños alduna emon egon da. Mayor ibayaren nasaitasun-lanetzaz itz egitera.

Valle lagunaŕ be emen egon da C. N. T.'tzako itaun batzuk egiten.

Lekeitio'ko afantzaliak be etoŕi yakuz. Afain ugaŕi atzapetan dabelako nora eruan eztaukiela ta Bilbao'ra eŕaŕteko eŕeztasunak eskatu dabez. Zaingo onek, geitu dau, poz-pozik la gunduko dautse.

Azkenez, jaŕaitu dau, ugazaba ta langilen iaubientzat agindu bat emongo da. Agindu onetan osoŕo galeŕazoko yake burtariñen gayak emon edo kontzak egitia, zaingo onetako baimenagaz ezpa'dua.

Nekazaritza Zaingoa

PATATA-AZIJA, JATEKO EZ, EREITEKO BAÑO

Uŕibe-Etxebaŕia jaunak esan dabenez, oraiŕ emongo daben patatea zaingo onek, ereiteko izan biaŕ dau, soil-soillik, eta ezetaŕa bere ez jateko. Zertzelada au aŕgi baño aŕgiago ezaŕteko eskatu dausku gustiak ondo uleŕtu dagien.

Agindu au autsi dagiana zigoŕtua izango da.

Beraz, ereiŕ biaŕekoŕ da oingo patata oŕi, oŕetxetaŕako bakaŕik emongo dau, ba, zaingo onek. Gaŕkuaŕi bakaŕik etxako begiratu biaŕ.

AGIŔALDIAK

Zaingo onetan gaur aŕtu diŕian agefaldiak, ona:

Sondika'ko Nekazaŕien Bazkuna, Amuŕio'ko Udala, Laukiniz, Santuŕtze-Oŕtuela, Okendo, Poŕtugalete'ko Udalak; Basauŕi'ko batzoŕde bat, Aŕana'taŕ Kauldi, Uŕaburu'taŕ Efoman, Etxebaŕia'taŕ Nikola, abelgoŕi-jaubien batzoŕdea, Rivas'taŕ Peli, Fulaondo'taŕ Danel, Efuki-Etxe Deuna, Aŕantzazu, Zala, Kaŕantza ta Galdakano'ko Udalak; Uŕibesalgo'taŕ Sabin, Maŕtinez'taŕ Efikaŕta eta Jimeno'taŕ Imanol.

Salerosketa eta orniketa

ALDASORO JAUNAŔI

Atzo goizez, Aldasoro jaunaŕ ikeŕtzeŕa Efusiako Bialdua ta Atzeŕian Euzkadiko jauŕlaŕitzako oŕdezkaŕi Zu'alka'taŕ Toma, Valle'taŕ Paul eta Bitoŕia'taŕ Efoka izan ziŕan Aŕaturiko zaingoan.

Iker zaleak apuŕbatez utzi ta izpaŕkaŕiok-gaiia aurezatu zan Aldasoro jauna.

—Baŕt—esan zuan—Lendakaŕitzan ospatutako aparika etoŕi ziŕan Euzkadiko jauŕlaŕi ta militaŕ guziak, eŕiaŕen oŕniketaŕako Euzko Jauŕlaŕitzak zabaldu duan ola goŕatzeaŕi botu ziŕan.

Ola'ko langile guzien buŕu, gipuzkoaŕ aŕaŕin eutsutetsu Goñi'taŕ Kepa jaŕi dagozalaŕaitu zuan Aldasoro jaunak. Goñiŕen lanaŕako zaletasuna goŕatzekoa ei da. Ola'ko laŕ guzia beŕak eŕa biltzen dua'a ta beŕaŕi esker egin ei du olak egin duan goŕakoa.

Laister-zaiñeratu zuan Aldasoro jaunak. Afoza eŕian beaŕ dau eraz zabalduko degun asmoa det. Ziuŕ-asko, aste ontatxe bertan, guda asi zanetik ikusi ere egin ez ba'degu, eŕitaŕai kolpez eman al izango diegu.

Aldasoro jaunak egunetik-egunera oŕniketa aŕazoa efazten difoala-ta, pozaŕen agurtu gaitu.

EGUNA ATZERRIJAN

Ingalanda'ren al-ixatia ikusten-ete?

Doitseŕi'ren ausaŕditasuna andija da ta asafe bixija soŕtu dau basteŕetan. Egal gustijetatik jasoten diŕa bere laurka askaltzale diŕa eŕijetako eŕike-talaŕijen itzak.

Egon be eztago ezkubideŕik bere ausaŕditasunaŕentzat. London eta Paris'eko jauŕlaŕitzei España'n "comunismoŕik" eztedila jayo diñotse.

"Comunismoŕik" iñok be eztau gura, jakiña, baña eztabe iñok eztau gura, España'n "comunismua" jaŕiko dala esatiaŕen atxakiz, españa-lateŕiko itz-bako gudalburubei gudaŕako izkilubak emon eta bake-bakian diŕan eŕijetako emakume, agura-atso ta umetxubak, doistaŕ egazkiñekaz eraiiteŕik be

Eta beŕau, zoŕigaistuan egija dala-ko. "comunismuaŕen" aŕeyo ixanagaiik "fascismuaŕen" adizkide eztiranaiiaŕgi ikusten dabe, eta zu oftik eta ni emendik esan eta asi yaluz alkaŕ ezaututen, eta alkaŕen ihiŕeŕak neuŕtuten.

Gauŕ, geyenetan lez, Ingalanda dala esan lei gustijonen aŕdatza. Beŕe biŕan dabil gustija. Beŕbeŕak daŕabil. Antxiñatxutik ikusten genduban beŕe eskuba auzi onetan.

Jazoten dana: lateŕ-auzijetan jakiun diŕanen lanak, aŕgijago, "diplomaticoen" lanak astiŕo juaten diŕa eta geuŕi etxaiku atsegin ixaten; baña egunak juan eta egunak etoŕi, "diplomaticoen" lanak mutuŕa agertuten dau. eta oraiŕguan be agertuten asi yakula esan lei.

Ingalanda'k beŕe lenengo zeregiña antza danez, geuŕe guda onetatik Italia ataratia ixan da. Mediteŕraneo'ko lateŕi onek ixen oŕi daŕuan itxasuan Ingalanda'gaz ondo egotiaŕen edo, naiko kalte egin-ostian, gugandik aldendu ta bakian egotia autu dualaŕ esan lei.

Oŕi loŕtu eskeŕo, Doitseŕi (Alemania) ausaŕdija ixiltzia ezta gauza gaitxa ixango. Biaŕbá guk uste baño aŕiñago, gauzak nastauten ezpa-diŕa, ba, nai ta doistaŕen amoŕuba andija ixan, baŕetu biaŕa ixango dau, beŕe lateŕi abaŕuko auzijak buŕu-auste andiiak da motoz-ta.

Doitseŕija'ren agindu-naya andija da, baña aleman edo doistaŕen joknerea ezagutubaz dauz ludi gustiko lateŕi askaltzaliak, eta doistaŕen jokuŕi kostauko yako buŕuŕik jasoteŕik.

Eden'ek Doitseŕi'ren naimen ausaŕditsubaŕi eŕantzunaz egin dauzan itzak, gaŕatzak diŕa. Beŕe itzak iŕakuŕten doguzan bakotxean gaŕatzaguak iŕudituten yakuz. Doitseŕija'ŕi agiñak eŕakusten dautsoz. Eta agiñak eŕakutsiaz bakaŕik Hitleŕ'en adizkidiak atzeŕatuten ba'diŕa, geuŕe gudeaŕen amaya asko uŕago ikusiko dogu.

ZETARGI.

Burdeos'tik.

AZKENENGO IZPARRAK

España'ko guda-oñetan.-Barcelona'n.-Lanik eza arintzeko amabi milloe laurleko Katalunya'n

Euzkadi'ko gobernuaren guda-agirija

Jasokunik ez Euzkadi'ko guda-oñetan. Gure egazkiñak ikusketak egin dabez aŕeŕijoaren guda-oñetan

BARCELONA'N

Guda-zaiketa'k agertu daben agiriak diñoana: Guda-oñetako ekintzak artilleriaren suan lotu diŕa.

Gure izkiluak tiro zuzenak jaurti dautsoez aŕeŕioaren tŕintxeŕei eta eztautse laga eŕak gogoŕtuten.

Belchite'ŕen aurka ekin dan suagakadeak aŕeŕioa igeska ipintia lortu dau eta eŕak zaintzen ebezan izkiluak ixildu e. in ebezan.

LANIK EZA ARINTZEKO

Generalitat'eko egunerokuak agindu bat dakaŕ. Beŕtan diñoanez amabi milloe laurlekoko laguntzea egiteko eskubidia emoten dautso Eŕi lanetako aŕduradunaŕi lanik ezaŕen aurka egiteko.

ARANJUEZ INGURUETAN

Dinamitero talde batek aŕeŕijuaŕen buŕni-bultzi edo tŕen bat biŕindu dau. Gure aŕtera gudaŕi bi etoŕi diŕa euŕen izkiluekaz.

GUADAŔAMA ETA SOMOSIEŔA GUDA-OÑETAN

Aiiatzia meŕezi dabenik ezeŕ ez. Suagakada txikija.

GUADALAJARA'N

Inguru oneŕan egiten diŕan guda-lanak ondo duaz, gure agintaŕiak buŕuŕatitako guŕaŕiak beteaz. Taŕacena aldian beŕogetaiŕu lagun atxilotu jakoez aŕeŕioaŕi.

ONTZI ITALIAŔAK ETA ALEMANAK

Paris.—Europaŕ patxistak españaŕai sendo laguntzen dautsuela oindiño be autoŕtuten dau "Le Populaire"-k.

Genovatik ontzi bat uŕten dala diño, kañoi, egozkin eta izkiiazkaŕez baterik eta beste kai batzutatik aŕtileŕiko gudaŕi ikasiak.

Italiaŕ eta aleman kayetatik, iskulua eta guda tresnaz ateŕaten diŕa ontzijak.

Mediteŕaneo ziaŕ gelditu baŕik dabiltz italitaŕ gudontziak eta afotz ontziak geldiŕazi eta aŕakatu egiten ditue. Blokeo dalakua Italia'k eta Doitseŕi'k dagie, españaŕ asaldaŕiak ezpaiditue ontzi naiiokoŕik oŕtaŕako.

FRANCO TA ASTRAY BAYONA-ALDIAN

Bayona. — "Avance" izpaŕingijaŕen idazle bat eldu baŕi da ona ta lerak azaldu dauanez españaŕ gudaiburu bi, Franco ta Millan Astray gaŕantzi andiko aŕazuaz eldu ei diŕa uŕi onetaŕa. Zeŕegin beŕezija da esku aŕtian daŕabiiena.

TROTZKY AUŔETIK DARABILE

Mexiko.—Lateŕiko iŕakaslien bazkunak dei bat aŕgitaldu dau, ta gobeŕnuaŕi bialdu dautsa. Trotzky mexikaŕ luŕetaŕa eŕdu dalako.

Naste ta zapaŕadak soŕtu baño ez ei dauz egingo ta asaŕiak ugaŕi, langilien matxiñadeaŕen aŕku ianean jaŕdun baño ez ei dan egingo-ta.

EUZKEL-EGUTEGIJA

Bilbao'ko Euzko-Gastedija'k 1937'gko. iŕaŕi daben euzkel-egutegi aŕtezijaŕen ijeki bat, aŕtu dogu.

Edeŕa zala esan euskuben. Edeŕa ta aŕtezija zala be bai. Beŕau dan edeŕa ta aŕtezija zala zaŕik, eskubetan aŕtuta ikusi ezpa'gendun, ikusi, ez gendun zinistuko. Oraiŕ bai. Eskubetan aŕtuta ikusi dogunian, edeŕ-edeŕa dala ikusi dogu, ta aŕtezi-aŕtezija dala autoŕtzen dogu.

卐 卐 卐

Euzko-Gastedija'k iŕaŕi ta aŕgiialdu dauskun euzkel-egutegi onek, amabi ingoski dauz. Eta ingoski bakotxian, ileko igande, jai ta donien ixenak dakaŕz. Edefgaŕitzat, baŕiz, aŕgazki aŕtezijak.

Egutegi-azaleko aŕgazkij., Euzkadi'ko Jauŕlaŕitza-lendakaŕijaŕena da: Agiŕe'taŕ Joseba Andoni'ŕena. Aŕgazki edeŕa benetan.

卐 卐 卐

Bilbao'ko Euzko-Gastedija'k aŕgiialdu dabenen egutegi au eŕosiko eztaben euzkotaŕik ixango danik eztogu uste.

Eguneŕo begiratuteko ez-eze etxeko aŕeto-edeŕaŕitzat be edonun jaŕi legiken edefgaŕija dalako. Zoŕijonak Gastedi'ko aŕgiialtzalei.

¿ENTZUN DOZUBE...?

Doistaŕak, euŕen "Palos" ixontzija Euzkadi'ko itxas-zaŕak espe aŕtu eutsienetik ona, aŕteŕik aŕtu ezinda ei-dabiltz. Aŕein efayak sutegijan kiskaltzen ba'legoz be, dagozan bano kiskaldubago ez-eleiekez egongo.

"Koenigsberg" doistaŕ ixontzi - buŕuba beñepein, "Palos" bide zala jazo yakana jazo ondoŕen, jazokun aŕen ondoŕenak jasan ezinda sabel-miñakaz istanda egin biaŕian ei-dabil.

Aldasoro jaunak egunetik-egunera oŕniketa aŕazoa efazten difoala-ta, pozaŕen agurtu gaitu

Euzkadi'ko Jauŕlaŕitza'gandik aŕtu ixan eban ikaspidiak, min aundija emon ei-dautso, emon be.

Eta Euzkadi'gandik aŕtu ixan daben min oŕi oŕdaña emoteko, auŕian ikusten daberan gustijei oldaŕtuten asi da. nunguak diŕan ez noŕtzuk diŕan jakin baŕik oldaŕtuten asi be...

卐 卐 卐

"Sotón" ixontzi gijondaŕa ikusi dau. Ixontzi oŕi, Santoña'ŕuntz joyan, ezegaz zamatu baŕik, utsik juan be.

"Koenigsberg" doistaŕak begiratu dautsaŕian eta Bilbao'tik Santoña'ŕuntz joyan ixontzija ikusi, guda-aupada gogoŕa jaurti eutsan, eta beŕiaia geŕatu egijala, esan. Ixontzi-buŕubaŕi oŕatu eutsoen, eta euŕen ixontziŕa eŕuan. Eta an, doistaŕ asaŕatubak, olantxe esan ei-eutsan: "Sotón"gaz egin ebana, Euzkadi'ko Jauŕlaŕitza'ŕi egin gu[illegible] eutsala."

¡Koenigsberg" gaxua! Buŕuba galduta da[illegible]

JAINKOIXUNAK

Paxistak euŕen jainkotxubak dabez, eta euŕen luŕeko jainkotxubak guŕtuten asi ei-diŕa.

Uŕtzi, gixaŕtera gentza donia ekaŕtiaŕen gurutzean il zan Josu Uŕtzi-Semia, Jaun-Goiko lez guŕtuteko-ta, luŕetik uŕunegi-edo aurkitzen dala uste dabe, aurko

Italia'n, Italia'ko paxistak, Mussolini jayo zan eŕika bideskundiak egiten asi ei-diŕa. Eta bideskunde oŕetan, Mussolini Italia'ko paxisten buŕu nagosija, jainkoixun-antzo guŕtuten ei-daba. ¡Olakoŕik! Italia'n jazoten dana Euzkadi'ko paxistak jakiŕen dabenian, jakin, Italia'rako bideskundiak gertetan asiko diŕa, Mussolini'ŕi otoi-bidez Euzkadi'ko paxisten gurendea eskatuten...

卐 卐 卐

Alemania'n, doistefijan, ostera, Hitleŕ gurtuten dabe, Hitleŕ'i otoi-egin eta Hitleŕ'i alatzak eskatu be.

Hitleŕ'en alatz-bidez (?) osatu ixan diŕan gexo asko ei-dago, Doisteŕijan.

Ango paxistak Hitleŕ baño beste jainkoŕik ez ei-dabe gurtuten.

Ona emen ikasbide edeŕa emengo paxista katolikuentzat (?).

EGUNA

JEL

¿EULIJA-ETE?



Eulija dirudi ezta? Ezta baña, ori burnizko txorija da; egazkin arrietaikua. Gudaldijetan beriak eta bost egiñen dabezanetaikua. Suaga edo kañoi bi daruaz, 20 eunen lodijerakuak. Ibili bafiz 450 kilometro orduko. Ezebez, Barcelona'ra or luferdijan eiduko litzake Bilbao'tik.

Lgo. urtia | 3'gn. zenbakija | Idazkolea ta banakolea: Correo, 17'gn. | Bilbao'n 1937'gn. Urtarrilla 3'gna. Igandea | 15 eunen

Gure gudontzijak paxistenari aurre emon eta Donostia'n eskuta arte jarraitu dautse

EGUNEKOA

Alemania ta Euzkadi

Gauzai beren sustaŕetatik eta gizonai euren egintzetatik eustea beti da ona. Gizon aundi izan nai duanak, gauzari gogoŕ erauntzi bearko dio. Izakera aundiak ez bait dira utzkerietan sendotzen. Ez degu ikusiko gizon aundirik tentelkeriak egiten. Ezta sentzundun gizonik umekeriak esaten. Gudal-buru ospetsuren bat "tira goma" baten belduŕez ikusiko ba'gendu, ez luke guretzat ospe aundirik izango.

Alemania Lateŕi aunditzak etsi izan degu, baiña, agerpe n iluna eman digu.

Adimenaren-arau guzien gaiñetik, geu bildurtuko giñuzelakoan, Euzkadi'ra "Koenigsberg" itxas-ontzia bialdu digulako, lenengo. Euzkadi'k auzi ontan agertu duan burutasun eta zuzenbide jatoŕa baiño jatoŕagorik. Eta ala ere...

Gaizki oituriko umeak zerbait ukatu diotenean esan oi duan antzo auxe erantzun duelako bigaŕen. "Ez det egingo ori "edo" aura egingo det". Oŕelaxe jokatu du Alemania'k "Soton" itxas-ontzia asaldatu duanean.

Egikerok ez dira sentzundunenak. Ez dute jasopen aundirik. Gizonaren sentzun eta gaŕantziari ez dagokiote iñoiz egikerok.

"Edonok" egiñiko tentelkeri bategatik ez da gizon aundirik asaŕetzen. Sentzundun emakumeak gaizki-esaka auŕeratzen zaion moskoŕ ta lagun-galduai ez die jaramonik egiten.

Une laŕiak ditugu.

Alemania'k galdu du "jokaldia".

Ez du bere gaitasukin azaldu. Euzkadi'k ostera, zuzutzean ludian dan gogoŕena baiño gogoŕago dagola agertu du.

Atsuaren aundikeri ta aundi-esanak beartsuaren eroapen eta bizitasunakin eutsi ta zapaltzen dira

Eroapenez bizi diranak goragaŕi dira ludiarentzat.

("La Tarde,,'tik euzkeralduta). ATXEŔE.

France'n sartu guraz.-Leterri orren mugaetan gizon asko bildu ditu Alemaniak.-Egitada orrek eztau zantzu onik.

London.—France'ren mugetan doistar gizon asko batio dirala-ta, ingelandar eŕi-gizonen artian zer esanik asko dabil. Alemani lateŕi oŕetan sartubeko asmotan dabilela deritxoe. Hitler'ek pausu ori zelanik egingo ete dauan jakin gurarik dagoz.

Alemaniak eraso-aldi ori iru lekutatik egingo dabela uste da. Belgika ta Holanda aldetik, Lieja ta Amberez'tik ala Suiza'tik.

Diñoenez, guda ori asitakoan, Alemaniak ogetamasei giza-talde izango ditu, amasei otomau ta asetsitekuak, eta milla bat egazkin. Ganeko aste batzutara, gudari oŕek amar bidar geituko litzatekez eta egazkiñak iru bidar. Tanketan amar milara elduko.

Rusitar egunerokuen eretxiz, Suiza'ren iparaldetik asiko litzake auŕeraka gogotsuen, beriala ondorenik lortu ez aŕen, France aŕiskuan jaŕiko leuke-ta, ortiko buŕukak gogor eta bultzadakuak izango litzatezelako.

Gertakixun oŕelaz lo bide dira ingelandaŕak. Hitleraŕak mutuŕetara eldu dakiezanean estutuko dira, antza ingelandaŕok.

Gure gudontzijak paxistenari aurre emon eta Donosti'n eskuta arte jarraituten dautes

Atzo afatsaldian, "Soton" itxasontzia Santoña'ra sartu orduko, Lekeitio-gaŕian paxisten itxasontziak ebizala jakin zan. Beriala gure gobernuak "Jose Luis Diez"-txasontzijari eta beste "bou" batzueri agindu eutsoen pirata oŕein bila juateko. Guriak agertu orduko eurak igesari emon eutsoen. Kontxa auŕera eldu ziranian gi itxasontziak kañoi-suaga batzuk jaurti eutsoezan eta euretariko bat osta-osta eta zalapastradaka Donosti'n sartu zala ikusi eben.

Loterija

Atzo egin zan Valencia'n loterija'ko zenbatzak agertutia eta sarituak ixan ziran zenbakiak onetxek dira:

Lenengo sarija, 28.390, Sevilla'rako.
Bigaŕen sarija, 41.955, Madrid'erako.
Irugaŕen serija, 38.998, Barcelona'rako.
Laugaŕen sarija, 21.383, Madrid'erako.

Bilbao'ko izparringijak diñuena

"Tierra Vasca"

"Costumbres públicas", deritxo izparringi onen saŕerako idazlanari.

Eta euzkotaŕen otura ta zilegitasuna goraltzen dauz.

Euzkadi'k iñoz be eztau gaiztakeriraŕo makuŕtasunik erakutsi. Oturarik onenekuena dala be, baña, eten bako zuzentasun ori eskatutja laŕegi litzake. Euzkotaŕen zintzotasun berauxe da, guri, abeŕtzale alderdijetakuoi begijak edegi biaŕ dauskuzana, gure abeŕkidiak otura onetaraŕo dauken zintzotasuna oker̄tuteko zijorik ez emateko.

Zuzentasunik eztaguan tokijetan eŕitaŕai zuzentasuna eskatzia alpeŕikua ixango litzake, baŕiz. Jaŕo ziranetik eta erijotza-ordurarte txirotasunik aundijenian bixi ixan diranaŕ; aundikijen joputzatik urten barik aurkitu ixan diranai beti apal eta makuŕ bixi biaŕ dirala eskatzia, gogoŕegija litzake, jaditxi-eziñekua. Baña orain, zorijonez, aberatsen nagositasuna jausijaz ikusten dogu. Beraz, gixaŕte-auzija atonduteko bidiak eŕeztuta dagoz.

Euzko-eŕija dan gixabidetsuba dala be, baña, beste toki batzubetatik ekaŕi ixan daben azijak bere ondorenak ixan dauz. A, beñolako euzkotaŕen gaŕdentasuna naspilduta ikusten da. Eta orixe, kanpotiko laño baltz orixe kentzen alegindu biaŕ gaŕa.

Bijotzeko garbitasuna galdu dauan gixona, bere burubaz baño ezta gomutetan. Enparaukuakaŕik eztautsa arduŕa, senide, adizkide ez iñogaŕik bez.

Eŕijak be, euren zintzotasuna galtzen dabenian, eŕitaŕ gustijentzat galtzen dabe.

Eta olakorik jazo eztaŕentzat, eŕiketea zuzenduten dabenen arduŕa eŕijak bide zuzenetik eruatia da, gauza gustijetan zuzutsa erabilijaz.

"Euzkadi Roja"

Izparingi onek, ixenpuru-antzo agertuten dauzan izki baltz aundijakaz betetan dau bere lenengo ingoskirik geyena. Lenengo ixenpuru-leŕuan olantxe esaten dau:

"Lotazila - 29'gko. gure zenbakijan agertu gebana da: Biaŕekua ba'litz, euzkotaŕak Euzkadi aldeztuteko atzazalakañokuak zoroztuko dabez, euraŕaz Euzkadi'ren areyuak diran paxista, kaisarkeritzaliak eta gure eskubide ta azkatasuna dauseztuten dabiltzan gustijei oldaŕtuteko". "Doistaŕak Euzkadi'ren buru-jabetasunaren aufka". "Euzkadi'k bere etxe-baŕuko gora-berak atonduteko, bera baño beste bitaŕtekorik eztau ezagututen".

"Areyuen irain-zirikadea, gauŕ, Euzkadi'ko uri ta baŕuri gustijetara eldu da". "Koenigsberg" ixontzi itxaslapuŕak, Euzkadi'ko Jauŕlaritza'ren eraŕtzun zuzenak mindu ebalako-edo, lagi gustijen aufka jagijaz, gijondaŕ "Soton" ixontzijari oldaŕtu dautsa". "Bere azkatasuna ta eŕitaŕenena aldeztuten dabiltan eŕijak, aufka jagiten yakazan gustijak menperatuko dauz". "Koenigsberg,,'ek eta jaŕai dabilkijozan gustijak jakin biaŕ dabena da au".

Eta onako ixenpuruben ondoren, "Euzkadi Roja,,'k, doistaŕ guda-ixontzi itxaslapuŕaren egiñen gaiztetsigaŕija itz gogoŕakaz gaiztetsiten dau.

"El Liberal"

"La Banca. Un decreto alarmante" ixenpurubakaz asten da izparingi onen saŕerako idazlana.

Euzkadi'ko Jauŕlaritza'k Ogasun-arduŕeko burkidiak agertu ixan daben Agindubaŕi erantzuten dautsa.

Eta Agindu areri, "El Liberal" izparingijak aldiŕik atazkua edo detu gura leuskijo. Arazo ori ez el-da, ba, orin axeratu biaŕ dan aŕazua, gurenda-eguna etoŕita gero agertu biaŕ zana baño.

Ganera Agindu oŕi, "El Liberal,,'en eretxiz, Txindi-Etxieta'ko garazkidunen aldezkua da, ta langilien kaltezkua.

Izparingi baten eretxi-meretxijak gora-bera, baña, Ogasun-Zaingo'ko Jauŕlaritza-burukidiaren Agindubak, Agindu ori argitaratuteko bere izpidiak ixango ebazan.

Ezkaŕezan, ba, laŕ estutu, ezkaŕezan asaldatu.

IRITZI - MIRITZI

EZ GORROTORIK

LUZEAR

Sabin irakaslearen eriotz urteuŕenean Mundak'n ninduzuten izlari. Gipuzkoa eta Araba alderako bultzadaren asiera zai giñan egun aietan ta eusko gudari sail eder aren auŕean egia biotzetik es pañetara pilpil zetorkidala aritu nitzan. Ta jakiña, aspaldian baŕenen dabilkidan oŕaren zimikoak azaleratu bear.

—Bildur bainaiz jakin ditugunak jakin ta ikusiko ditugunak ikusirik, gizatasuna galduta, odolegaŕi asegaitzez, gure erki maiteak gorotorik bildurgaŕienen mende jaŕiko ez ote ditugun.

Ta ikararen ikaraz "GOŔOTORIK EZ" esan nien bein ta beŕiz ere, "goŕotorik ez".

Ta "goŕotorik ez" esaterakoan ez neuzkan begi auŕean etsaiak besterik. Abertzaletasuna zapaltze aŕen, langileen eskubideak zapaltze aŕen, ezin esan alakoak egiten ari diran oiek, gure gizatasunari zipoztiŕik sinisgaitzenarekin erantzun dioten oiek. Kristo'ren izenean apaizik apaizenak iltzen ari diran oiek: oietxek bakaŕik neuzkan begi auŕean, gure gudari bikañai, gurutzean ildako Jainkoaren itzak gogoragazi ondoren, gure Egileari "barka zaiskiguzu gure zoŕak, guk gure zordunai barkatzen diegun bezela" egunero eskatzen diogunak goŕotoari biotzeko zifikiturik ere irikitzerik ez daukagula adierazias "GOŔOTORIK EZ" esaten nienean.

Goŕotoarekin, maite degun eŕia omdatuta, benetako pakerik gabe, beti zalantza ta kezka artean, zeru txikia litekena inperru bizi biurturik nabaitzen bainuan.

Ta atzo, biotzak dordor eragin dit. Goŕotoarekin topo egin baidet. Ez gañera "goŕotorik ez" nianean begi auŕean nituan aienganako goŕotoa.

—Izen eŕeskadatxo bat zan. Donostia'n gelditutako "traidores" eŕeskada buruan zionez. Ta ogeitairu izen-abizen artean, bat bakaŕa izenordez "apaindu-ta". Ta izen-ordea, aŕitu, irakurle, neronena.

Goŕotoak erabilitako eskua ura idatzi zuana, noski. Nere izenordea Donostia'n gelditutako anai bateri ezartzen baitzion. Ez aren gerako. Ez nererako ere, Bioi kalte egiteko baizik. Ta biokin batera abertzale alderdiari "Oŕa or zuen idazleak" esanaz bezela.

Ez nua eŕeskadan azaltzen diran nere bi anaiak nere iritzian ondo egin duten ala ez azaltzera. Gauza bat esan nai nioke, ordea, ura idatzi zuanari "Euzkadi Rojo" artezkariak entzuteko eran gañera.

Iru anai dabizkit gudoñetar beren gogoz. Ez det aien izenik iñongo papereran zabaltzen ikusi. Izan ere, ainbestek egin dute nere anai oiek ainbat.

Ba, nik, emendizek, nere iru anai oien izeneau, fazistak artuta zigorpean egona dedan aŕebaren izenean, eta neronenean eskaera auxe egiten det: Donostia'n gelditutako bi anaien izenik ere ez dedila iñongo papereton aizatu alik eta gauzak ondo garbitu arte, ta are ta gutxiago beŕiz, malaz kanpora, berak baño erantzun bear aundiagoa dutenen auŕetik, ta gezuŕa lagun dutela, kalterik aundiena egin nairik bezela.

Ez goŕotorik.

Ta olderdi bakoitzak neur bitza bere lagunak, guziak ere lana izango dute ta.

Bilbao'n 1937'gn.

BURNIZKO TXORIJAK



¡Gixonak asmatsen dauzanak! ¡Eta gixadijaren onerako asmauko ba-leuz...! Baña egazkin edeŕ au ez-edo da oŕetarako. Beintzat milla kilo suaga erabilli ta jaurtiteko geftaurik dago. Zortzi izkilazkaŕ (ametralladora) daruaz eta ibili ¡orixe da ibili! 320 kilometro ibiltzen da ordu bakotxean.

Guda oñetako barrijak

Golz beluan juan gara gudaroñik oin, gure irakurilei zerbait bitcu nayez. Eztogu, ordia, zeri andirik izan, edesgaŕirik ezertxo bere arkitu eziñik.

Otxandiano aldera juan da goi samar Vidal Munaŕiz koronela, zelai areik ziaro astertu ta bear diran erabagi ta adiraipenak auspartuteko Muga-leŕoak, izkilu toki eta gudari gustiak ikertu ditu, eta atsegiñez lotu bide da.

Itxas-aldekoetan artileri etsayak zerbait jardun izan dau, aipeŕik ostera, Gudariak edozetara ekanduŕu diraŕta, oŕelako eraŕoak ezereztzat joben da bez. Emen izkiluak erantzun edeŕik emon dautse.

Markiña aldian be, bake antzera egon dira.

Beste leku baten agertuten dogu itxasuan izan diran iskanbilak. Egazkin gudaontzi ta abaŕek zerbait igitu beaŕa senti dabe alkaŕekin buŕukarik nai ezta.

Azken orduan ezer gerta ezpa'da, oŕa atzoko guda-izparak.

¡ERRI ORREEK, ERRI ORREEK!

Jauna, eta a'a ere. Gudan sartu sartu-eginda gagozala eztozube ikusten ala? Eztozube ikusten, zubek, eŕi txikijetan bizi zarien anai aŕeba euzkotaŕok, eta euzkotaŕ etzaŕienok bere bai, guda zital au dala ta eztala, negaŕak negaŕ egin daruaguzala, geure Euzkadi Aberi bakaŕ au (Aberija bakaŕa ixan oi da beti, Ama bakaŕa ixan oi dan lez) odolusturik laga nai dauskuelako? Eta eztozube ikusten itsuak zarie a'a? Odoltzale oŕeek guda-oñetan, frentietan bakaŕik eztagozela? Geure artian, eta askotan, txaŕena au da, geure lagunik aundijena ixango balitz lez dagerkigula? Ala uste dozube, gipuzkoa aldetik bizkairatu diran danak, lagunak doguzala? Ez, eŕitaŕ maitiok ez, gipuzkoatik falangetafan eta efeketien igesi etoŕi diranak, eztira danak, gure lagunak. Oŕetatik asko ta asko eztira besterik, biŕdurti aundi batzuk baño, eta, nun ixango ete nok onduen?, pentsetan dabienak eta ez, nere Aberija ondo ixateko eta nere ziñesmena onduen zainduteko, ¿zer egin biaŕ ete dot? esaten dabienak. Eta ez uste gauza onek gipuzkoa'ko beŕi eztakijan batek esaten dautsubezenik ez. Gauza onek, gipuzkoatik igesi bere ogasun txikeŕak an laga ta etoŕi dan batek dirantzubez.

Jaunak: Sevila'ko Queipo'n jarduntari ez egijozube jaramonik egin, eta bai ostera, ondo ondo bete egixubez Euzkadi'ko Jauŕlaritza'k zuen eta gure onerako egin daruazan Oroagindu (decreto) ta agindubak. Bere ordezkarijak, bijuŕikerijen bat egiten dautzubela? A! Olakorik jazoko ba'leuzkitzu bai ete dakixu Bilbao nun dagon? Ba, ementxen dago Euzkadi'ko Jauŕlaritza.

Jaunak: Txeŕenari edo diabruari argi bat, eta Jaungoikua'ri beste bat egiñaz ezin leiteke bizi?

Zeuretzako txeŕena zein dan zeuk, jakingo dozu.

ZAŔ ZALE.

Euzkadi'ko Lendakariak bialdu eta artu dauzan urrutidazkiak

Valencia'tik Itxasoko ministruak Euzkadi'ko Jauŕlaritza burubari:

"Urtebaŕi aziunian, Bilbao'ko aldun onek euzko-eŕizaletasunaren ugalak darabilezan gizona agurtuten dau. Azkatasun alde jokatuaz eŕi ori gaizkatuten, eta España be bai, oŕen zintzo diarduan eŕia, buztaŕiak oro auziaz, ta araudiaren bidez emoniko eskubidiak galduten utzi ezaz, gurendara garoiazan egun argi onetan."

卐 卐 卐

Euzkadi'ko Gobernu-buruak, España'ko Itxas-ministruari:

"Urtebaŕiz zorion-aguŕ egiñaz, onurak opa dautzudaz, eŕiaren gurendaz batian, gure Gobernuaren aburu batezko gurari, zu onuntz egun batzutarako etoŕtia adirazoten dautzut.

Betiko adizkidetasunez, agintzen zaudaz neure ta Jauŕlaritza izenean."

卐 卐 卐

España'ko Gobernu-buruak, Euzkadi'koari:

"Garaitza osoaz batian Eŕkalak zorijon-aldi izan dugiala opalduaz, urtebaŕi onetan neure aguŕ ta eskeintza dagizudaz."

卐 卐 卐

Euzkadi'ko lendakariak España'ko Gobernu-buruari:

"Bizi-biziro eskeŕak zure agurari, garaitzea lasterekua izan daigube opalduaz eta nekion ordez atsegin eta zoriona gero."

✣ ✣ ✣

Rosario de Santa Fe'tik Agife lendakari jaunari:

"Zazpirak-Bat'eko bazkide danak bildurik, aguŕ ta txalo biotzeknak dagitsuez Euzko-Jauŕlaritza'ri, guda ontan, bakaŕ bakaŕik berak dagian lan aberkoi ta gizabidetsugatik. Gure asaŕez patxisten laŕe, gilkeriakaitik, euzkoen eraillketa, apaizena, abeŕia ta euzkerea maite zituelako.

Ildakoen sendiakin bateratuaz, munduaren aufe ta katolikoen aufe didaŕ dagigu bidebageken oŕek dirala-ta, Euzkadi'ren alde zintzo jagi dan gastediari gure aguŕ beroa."

卐 卐 卐

Agife jaunak, Argentina'ko Zazpirak-Bat'i:

"Eskeŕak zuen agurari nire ta euzko-gastediaren izenez. Gastedi onek bifinduko dauz patxista deungak, gure ikuŕiña betiko gora jasoaz."

"La Gaceta del Norte"

Izparingi onek be "Koenigsberg" doistaŕ guda-ixontzijaren egiñen deungiari oratu dautsa bere saŕerako idazlana ioŕzteko.

"Soton" ixontzija, Bilbao'tik Santoña'runtz joyala, eta itxasertzetik lauen bat aneurkin aurkitzen zala, doistaŕen ixontzi itxaslapuŕak aupadea jaurti ei-eutson, eta zemel-bidez geldituazo.

Doistaŕen, ankeŕkerija aundija da ixan be. Euzkadi'ko Jauŕlaritza, baña, ankeŕkeri oŕelk gora-bera, doistaŕak eztabe makalduko, bere eskubidietan sendotuagotu baño.

"El Noticiero Bilbaino"

Gipuzko ta Araba'ko guda-oñetako izpaŕak emoten dauz lenengo lekuban.

Ubidea-gane agertu ziran paxisten amaika egazkin'i, eŕi-aldezlien egazkiñen aufkako sugakaz beriala andik lges-eragin eiseutsoen.

Eta urtiaren lenengo eguna beste izpaŕ urten barik igazi zala diño: gentzatsu.

GURE GUDARIJAK

"Amayur" gudatsaleko talde edeŕ bat, euzko-ikuriñaren babespian.